

Harrera-gida

Guide de bienvenue

ANOETAKO UDALA



Aurkibidea

6

Anoetako datuak

16

Euskara

24

Kultura

36

Erakunde eta
gizarte-eragileak

10

Herriguneko mapa

18

Gazteria

26

Hirigintza

Kirola

37

Telefono
interesgarriak

12

Gizarte-zerbitzuak

Bake-epaitegia eta
erregistro zibila

20

Ingurumena eta
landa-garapena

28

Bestelako
azpiegitura
publikoak

38

Hitzegia

14

Parekidetasuna

22

Liburutegia,
KZgunea, ikasteko
gela

30

Anoetako jaiak

Sommaire

7

Datos de Anoeta

17

Langue basque

25

Culture

36

Institutions et
acteurs sociaux

11

Plan du centre de la
commune

19

Jeunesse

27

Urbanisme
Sport

37

Téléphones utiles

13

Services sociaux

21

Environnement et
développement
rural

29

Autres installations
publiques

38

Vocabulaire

Tribunal de première
instance et bureau
d'état civil

23

Bibliothèque,
espace KZ, salle
d'étude

31

Fêtes et événements
d'Anoeta

15

Égalité

Ongi etorri

Kaixo, herritar hori!

Anoetako Udalaren izenean, ongi etorri beroena eskaini nahi dizugu. Anoeta udalerrri txikia izan arren, anitza da, eta hainbat dira bertatik bertara eskura izango dituzun zerbitzuak eta azpiegiturak. Anoetako sinboloa kukua da, horregatik agertzen da kukua udaletxeko armarrarian.

Herrian dauzkagun baliabideak eta zerbitzuak zuri gerturatzeko asmoz, esku artean duzun gida txiki hau prestatu dugu. Anoetan murgiltzen hasteko tresna baliagarria izango zaizulakoan gaude.

Ongi etorri Anoetara!



Bienvenue

Bonjour!


Au nom de la Mairie d'Anoeta, nous tenons à vous souhaiter une chaleureuse bienvenue. Anoeta a beau être une petite commune, elle est très diverse et comprend un large éventail de services et d'installations. Le symbole d'Anoeta est l'oiseau coucou, représenté également sur le blason municipal.

Afin de vous inviter à connaître les ressources et services de la commune, nous avons élaboré ce guide que vous tenez entre les mains. Nous espérons qu'il sera un outil utile et qu'il vous aidera à apprivoiser la commune.


Anoeta vous souhaite la bienvenue!



Anoeta Euskal Herriko herri txiki bat da, 4,1 km² ditu eta 2.100 biztanle inguru ditu (2024). Biztanle gehienak herrigunean bizi badira ere, hainbat auzune ere badaude sakabanatuta. Gipuzkoako herrialdean eta Tolosaldeko bailaran dago kokatuta. Berezko hizkuntza euskara da.



Biztanleriaren bikaera Anoetan 2010-2025



Anoetarren jaiolekua

Euskara hizkuntza minorizatua da. Euskararen eremua ez da estatu nazional bat, eta administrazio bakoitzean egoera ezberdina da. Dagoeneko ohartuko zinen herri honetako biztanle gehienok dakigun eta erabiltzen dugun hizkuntza euskara dela, eta, gainera, euskaraz bizi nahi duen herria garela.

2021eko datuen arabera:


- Ezagutzari dagokionez: anoetarren %71 euskalduna da, %14a euskara ulertzeko gaitasuna badauka eta %15a erdalduna da.
- Lehen hizkuntzari dagokionez: %53k jaso du euskara lehen hizkuntza gisa, %33k gaztelania, %8k bi hizkuntzak eta %6k beste hizkuntza bat.
- Etxeko erabilerari dagokionez: %40k euskaraz hitz egiten du etxean, %37k gaztelaniaz, %19k bi hizkuntzak eta %4k beste hizkuntza bat.
- Kaleko erabilerari dagokionez: kalean entzuten diren elkarrizketen %73 euskaraz dira Anoetan. Euskaraz gehien hitz egiten dutenak haurrak eta gazteak dira; hauen elkarrizketen %80 baino gehiago euskaraz izaten dira.

Le basque est une langue minorisée. Son champ d'application n'est pas un État national, et la situation est différente dans chacune des administrations. Vous avez certainement remarqué que la plupart des habitants et habitantes de la ville parlent basque et qu'Anoeta est une commune qui veut vivre en basque.


Selon les chiffres de 2021:

- En ce qui concerne la connaissance du basque, 71 % des habitants sont bascophones, 14 % sont capables de comprendre le basque ; et 15 % parlent basque et espagnol.
- En ce qui concerne la première langue, la première langue de 53 % des habitants est le basque ; la première langue de 33 % des habitants est l'espagnol ; 8 % des habitants parlent basque et espagnol ; et 6 % parlent en plus une troisième langue.
- En ce qui concerne la langue utilisée à la maison : 40 % des habitants parlent basque à la maison ; 37 % espagnol ; 19 % les deux langues ; 4 % une autre langue.
- En ce qui concerne l'usage informel dans la rue, 73 % des conversations que l'on entend dans la rue à Anoeta sont en basque. L'usage du basque est plus fréquent chez les enfants et les jeunes, puisque dans ces cas-là, 80 % des conversations sont en basque.

Anoeta est une petite commune du Pays Basque, d'une surface de 4,1 km². Elle compte une population de quelque 2.100 habitants (selon les chiffres de 2024). Bien que la majorité des habitants vive en centre-ville, il y a également des quartiers dispersés autour. Anoeta, située dans la vallée de Tolosa, appartient à la province du Guipúzcoa. La langue locale est le basque.



Évolution de la population d'Anoeta 2010-2025



Lieu de naissance des habitantes d'Anoeta





Herriguneko mapa / Plan du centre de la commune

- | | | | |
|---|--|---|--|
| 1 | Udaletxea / Mairie | 5 | Gaztelekua |
| 2 | Anoetako Herri Ikastola | 6 | Gela balioanitza / Salle multidisciplinaire |
| 3 | Abraham Olano kiroldegia / Salle omnisports | 7 | Liburutegia / Bibliothèque |
| 4 | Mikelasagasti Auditorioa /
Auditorium Mikelasagasti | 8 | Adinekoen parkea /
Parc pour peronnes âgées |



- 9 Posta-bulegoa / Bureau de poste
- 10 Osasun-zentroa / Centre de santé
- 11 Hozpel lokala / Local Hozpel
- 12 Haur-eskola / École maternelle

- 13 Alkartasuna elkartea /
l'association Alkartasuna
- 14 Tren geltokia / Train (Renfe)
- 15 Autobus geltokia / Gare routière



Gizarte-zerbitzuak

Adineko pertsonak

- Laguntza teknikoak.
- Eguneko arretazzerbitzuak: estimulazio-tailerra.
- Ttipi-Ttapa.
- Egoitzak.
- Aldi baterako egonaldiak.
- Telealarma.
- Mendekotasun-RAI eta ezgaitasun-balorazioak.
- Familia inguruan zaintzeko prestazio ekonomikoak.
- Zerbitzuari loturiko prestazio ekonomikoak.

Familia, haurrak eta nerabeak

- Familientzako informazioa, orientazio-eta balorazio-zerbitzua: Etxeko Laguntza Zerbitzua eta Esku-hartze Psikosozialeko Programa.
- Seme-alabak izateagatik prestazio ekonomikoak: Eusko Jaurlaritzak eta Gizarte Segurantzak emandakoak.
- Familia ugarien agiria.

Ezinduk

- Ezgaitasun-balorazioa.
- Laguntza teknikoak.
- Eguneko zentroak.
- Egoitzak.
- Zaintzaileentzako laguntza.
- Aparkatzeko txartela.
- Telelaguntza.
- Etxeko Laguntza Zerbitzua.
- Mendekotasun, RAI eta ezgaitasun balorazioak.
- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoak.

Indarkeria matxista eta erasoak

- Harrera-zerbitzua: informazioa, orientazioa eta aholkularitza.
- Larrialdiko harrera.

Menpekotasunak eta adikzioak

Menpekotasun edo adikzio-arazoak dituzten pertsonentzako edota familientzako arreta-erbitzua.

Gizarteratzea

- Larrialdi egoeran dauden herritar edo familientzako etxebizitza.
- Gizarteratzeko eta lan munduan sartzeko baliabideak.
- Egonaldi ertain eta luzeak egiteko bizilekuak.

Prestazio ekonomikoak

- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
- Kotizatu gabeko pentsioak.
- Gizarte Ongizateko Fondoak.
- Mendekotasun Legeak jasotzen dituen dirulaguntzak.

Nazioarteko lankidetzak

- Garapenerako heziketa eta sentsibilizazioa.
- Elkartasun Bekak.
- Nazioarteko larrialdiak.

Hitzordua eskatu behar da.



943 569 213



gizarte@anoeta.eus / gizartelaguntzailea@anoeta.eus

Bake-epaitegia eta Erregistro Zibila

Hitzordua eskatu behar da.



943 246 538



ezkerra.a@justizia.eus

Bake-epaitegia (beste epaiegietatik datozen komunikazio-ekintzak, falta-judizioak, adiskidetze-ekintzak).

Erregistro Zibila (ezkontzak, jaiotzak, heriotzak, abizenak euskal grafian jartzea, etab.)

Services sociaux

Personnes âgées

- Aides techniques
- Services de centre de jour : atelier de stimulation
- Ttipi-Ttapa (balades en groupe)
- EHPAD
- Séjours temporaires
- Téléassistance
- Dépendance, RAI (orientation pour un centre de jour et un EHPAD) et évaluations d'invalidité
- Allocation en espèces pour des soins dans l'entourage familial
- Allocation en espèces liée à des services

Famille, enfants et adolescents

- Service d'information, d'orientation et d'évaluation des familles: Service d'aide ménagère et Programme d'intervention psychosociale.
- Allocation en espèces au titre des descendant: Aides du Gouvernement basque et Aides de la Sécurité sociale.

- Carte de famille nombreuse.

Handicap

- Évaluation du handicap
- Aides techniques
- Centres de jour
- Résidences
- Aides pour les aidants
- Carte de stationnement
- Téléassistance
- Service d'aide ménagère
- Dépendance, RAI (orientation pour un centre d'activités de jour et un foyer de vie) et évaluations de handicap
- Allocation en espèces pour des aides personnelles

Violence masculine et agressions

- Service d'accueil : information, orientation et conseil.
- Intervention en cas d'urgence.

Dépendance et addictions

Service d'accompagnement des personnes dépendantes ou souffrant de problèmes d'addiction et des familles.

Socialisation

- Logement pour les personnes ou familles de la commune qui se trouvent en situation d'urgence.
- Ressources pour l'inclusion sociale et professionnelle.
- Logements pour les séjours moyens ou longs.

Allocations en espèces

- Aides d'urgence sociale
- Pensions non contributives
- Fonds de bien-être social
- Subventions prévues par la loi sur la dépendance

Collaboration internationale

- Éducation et sensibilisation au développement.
- Bourses de solidarité.
- Urgences internationales.

Il est impératif de prendre rendez-vous.

☎ 943 569 213

✉ gizarte@anoeta.eus / gizartelaguntzailea@anoeta.eus

Tribunal de première instance et bureau d'état civil

Il est impératif de prendre rendez-vous.

☎ (00 34) 943 246 538

✉ ezkerra.a@justizia.eus

Tribunal de première instance (actions de communication émanant d'autres cours ou tribunaux, infractions judiciaires, procédures à l'amiable).

Bureau d'État civil (mariages, naissances, décès, réécriture de noms avec la graphie en basque, etc.).

Parekidetasuna

☎ 943 651 200 (3. luzapena) ✉ kultura@anoeta.eus

Ahalduntzea eta aniztasuna lantzeko ekimenak

Ikastaroak, hitzaldiak, antzerkiak, erakusketak, dokumentalak, solasaldiak ...

Indarkeria matxistari aurre egitea

- Sexu-heziketa programa, hezkidetzan oinarrituta, Anoetako Herri Ikastolarekin elkarlanean.
- Indarkeria sexistari aurre egiteko udal-protokoloa
- ADI ETA SO! indarkeria matxistaren aurkako Anoetako mahaia.

Jai berdinzaleak

Jai parekideagoak egiteko irizpideen lanketa.

Andragora Tolosaldeko emakumeen etxea

- Sentsibilizaziorako eta emakumeen ahalduntze feministarako gun e iraunkorra.
- Askotariko emakumeen arteko sarea .
- Indarkeria matxistari aurre egiteko gunea.

Erabiltzaileak 16 urtetik gorako emakumeak dira eta bazkide izateko ez da baldintza berezirik eskatzen, ez da kuotarik ordaintzen.

Bertan ematen diren zerbitzuak:
jabekuntza eskolak, tailerrak,
hitzaldiak, aholkularitza juridikoa
eta aholkularitza psikologikoa.



☎ 943 008 967

✉ andragora@andragora.eus

📍 Emakumeon Plaza, 1 (Tolosa)



Astelehenetik ostiralera, goizez eta arratsaldez. / Du lundi au vendredi, matin et après-midi.

Égalité

📞 943 651 200 (Poste: 3)

✉️ kultura@anoeta.eus

Iniciatives pour travailler l'émancipation et la diversité

Cours, conférences, théâtre, expositions, documentaires, discussions...

Lutter contre la violence masculine

- Programme d'éducation sexuelle, basé sur la coéducation, en partenariat avec l'Herri Ikastola d'Anoeta.
- Protocole municipal pour lutter contre la violence sexiste.
- ADI ETA SO! Bureau d'Anoeta contre la violence masculine.

Fêtes égalitaires

Élaboration de critères pour organiser des fêtes plus égalitaires.

'Andragora' Tolosaldeako emakumeen etxea - La maison de la femme

- Garantir des espaces durables qui favoriseront la sensibilisation et l'émancipation des femmes.
- La construction de réseaux avec des femmes diverses.
- La lutte contre la violence masculine.

Les femmes de plus de 16 ans peuvent participer. Aucune condition particulière n'est demandée pour y adhérer et aucune cotisation n'est exigée.

Parmi les services proposés au centre figurent une école d'émancipation, des ateliers, des conférences, une assistance juridique et un soutien psychologique.

Euskara

Astelehen, asteazken eta ostirala (8:30-15:00)

☎ 943 651 200 (4.luzapena)

✉ euskara@anoeta.eus

Herrira bertakotzeko ez duzu zure hizkuntza alde batera utzi beharrik, gero eta anitzagoa den herri hau aberastu egiten baita zure hizkuntzarekin. Hala ere, jakin ezazu, euskara ikasteko aukerak badaudela herrian eta eskualdean, eta baita horretarako laguntzak ere. Euskara ikasteak, herria bere osotasunean ulertzea, herriaz gehiago gozatzea eta etxean sentitzea ekarriko dizu.

- Euskararen lurraldera etorri zara, udalerri euskaldun batera.
- Arnasgune eta udalerri euskaldunek funtzio garrantzitsua dute euskararen normalkuntzan.
- Euskara ikasteak abantailak emango dizkizu eguneroko bizitzan.
- Gure herria euskalduna da, eta egunerokoan euskaraz bizi nahi dugu. Euskara bizi-bizirik dago, eta guretzako oso garrantzitsua da bizilagun berriak ere euskarara gerturatzea; zure jarrerak eragina du.
- Euskara ikasteak abantailak ditu zuretzat: herria ulertzeko eta bertakotzeko bidea irekiko dizu, hurbiltasuna emango dizu, lana lortzeko aukera gehiago izango dituzu, haurrak izanez gero eurei laguntzeko aukera emango dizu...

Herrian euskara ikasteko aukera

Euskara ikasteko taldeak ditugu, gutxieneko ikasle-kopuruak izena emanez gero. Interesatuak Udaleko euskara zerbitzura jo dezakete. Matrikulazioa irailean izaten da.

Euskara ikasteko laguntzak

Udalak euskara ikasteko dirulaguntzak ematen ditu edozein euskaltegitan eta C1 arteko mailatan matrikulatzen direnentzat. Informazio gehiago Udaleko euskara zerbitzuan.

Herriko bizilagunekin praktikatzeko aukera

Mintzalagun taldeak antolatzen ditugu euskara hobetu nahi dutenentzat, euskara gehiagotan erabili nahi dutenentzat eta euskaraz bizitzeko apustua egin nahi dutenentzat. Astean behin ordubetez eta talde txikitan (2 edo 3 pertsona). Izen-ematea irail-urrian izaten da.



Langue basque

Horaires : lundi, mercredi et vendredi (08h30-15h00).

☎ (00 34) 943 651 200 (Poste: 4)

✉ euskara@anoeta.eus

Pour vous intégrer dans la commune, vous n'avez pas à laisser de côté votre langue maternelle. Anoeta est une commune de plus en plus diverse, qui s'enrichira au contact de vos caractéristiques linguistiques. Néanmoins, nous vous informons qu'il existe des formules pour apprendre le basque, aussi bien dans la commune que dans la région, sans oublier les aides. Parler le basque vous aidera à comprendre la commune dans son ensemble, à mieux en profiter et à vous y sentir chez vous.

- Vous venez d'arriver dans le pays du basque et, plus exactement, dans une commune bascophone.
- Vous vous trouvez dans un bassin essentiel du basque. Ce sont des lieux qui, aux côtés d'autres communes bascophones, jouent un rôle essentiel pour la normalisation de la langue basque.
- Étudier le basque vous apportera donc des avantages dans la vie de tous les jours.
- Anoeta est un village bascophone et ses habitants souhaitent vivre en basque. Le basque est une langue vivante et il nous paraît très important que ses nouveaux habitants s'intéressent au basque. Votre attitude influera également sur les décisions d'autres personnes.
- Si vous décidez d'apprendre le basque, vous verrez qu'il vous apportera d'autres avantages, par exemple une plus grande facilité pour connaître le village et vous y installer, plus d'opportunités de trouver un emploi et, si vous avez des enfants, vous pourrez mieux les aider, etc.

Possibilité d'apprendre le basque dans la commune

Des groupes sont organisés dans la commune pour apprendre le basque, à condition qu'un nombre minimum d'élèves soit réuni. Les personnes intéressées peuvent s'adresser au service municipal de la langue basque. L'inscription a lieu en septembre.

Aides pour apprendre le basque

La mairie accorde des aides pour apprendre le basque aux personnes qui s'inscrivent dans un euskaltegi (centre de formation à la langue basque) quel que soit le niveau. Il est possible de se renseigner auprès du Service de Langue Basque de la mairie.

Possibilité de pratiquer le basque avec les personnes de la commune

Nous organisons des groupes de pratique pour les personnes qui souhaitent améliorer leur compétence orale en basque, les personnes qui souhaitent l'utiliser plus régulièrement ou s'engager à vivre et se lier en basque. Le groupe se réunit une heure par semaine en petits groupes (de deux ou trois personnes). La période d'inscription s'étend entre septembre et octobre.



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

Gazteria

☎ 688 761 343

✉ gazteria@anoeta.eus

Haur-txokoa eta gaztelekua

Haur-txokoa 8-11 urte bitarteko haurrei zuzendutako espazioa da, eta gaztelekua 12-15 urte bitarteko gazte eta nerabeei bideratutakoa. Bertan hainbat ekintza egiten dira egunero, astelehenetik ostiralera (17:00-20:00). Urritik maiatza bukaerara egoten da irekita. Izen-ematea irailean zabaltzen da eta espazio horretarako sarrera doakoa da.

Treba gurasoak

Urtero, gurasoentzat interesgarriak izan daitezkeen hitzaldi edo tailerrak herrira ekartzen saiatzen da Udala.

Udalekuak

Udalekuak ekaineko azken astean hasten dira. HH1-LH6ko herriko gaztetxoenei bideratuta daude, ekintza honek lau aste irauten du eta bi txandatan banatzen dugu; txanda bakoitzak bi asteko iraupena izaten du. Hilabete osoko edo txanda bakarreko izen-ematea egin daiteke; astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara. Ekintza eta ospakizun ugari egiten dira, esate baterako: San Fermin eguna, uraren eguna, mozorroen eguna, eguneko irteerak...

Ikastaroak

Udalak urtero hiru ikastaro desberdin proposatzen ditu LHko ikasleentzat. Ikastaroak herritarren interes eta gogoaren arabera aldatuz joaten dira. Azken urteetan eskainitako ikastaroen adibideak: irratsaioa, zirku ikastaroa, eskulanak, yoga txikientzat, antzerkia...

Ekintza bereziak

Aste Santuan eta Eguberrietan ekintza bereziak antolatzen dira, bai Gaztelekuan eta baita herri mailan ere: antzerkiak, puzgarriak, irteerak...



Jeunesse

☎ (00 34) 688 761 343

✉ gazteria@anoeta.eus

Haur txokoa et gaztelekua

Haur Txokoa est un espace réservé aux enfants âgés de 8 à 11 ans. Gazteleku est un espace réservé aux adolescents âgés de 12 à 15 ans. Des activités sont réalisées tous les jours, du lundi au vendredi (17h00-20h00). La période d'ouverture s'étend d'octobre à mai. L'inscription s'ouvre en septembre et l'accès est gratuit.

Activités pur les parents

Chaque année, la mairie s'efforce d'amener à la municipalité des conférences ou ateliers qui peuvent être intéressants pour les parents.

Udalekuak (centres aérés)

Les centres aérés sont organisés la dernière semaine de juin. Ils accueillent les enfants dont les âges vont de la petite section de maternelle à la sixième du collège. Ils durent quatre semaines, réparties en deux groupes, de quinze jours chacun. Il est possible de s'inscrire aux centres aérés pour tout le mois ou seulement pour l'un des deux groupes. Les horaires sont du lundi au vendredi, de 10h00 à 13h00. Les centres aérés organisent une myriade d'activités et de fêtes, notamment le jour de la Saint-Firmin, la journée de l'eau, la journée des déguisements, des excursions à la journée, etc.

Stages

La mairie propose chaque année trois stages de basque pour les élèves de l'école primaire. Les stages varient en fonction des intérêts et des motivations de la population. Voici quelques exemples des stages réalisés au cours des trois dernières années : radio, travaux manuels, yoga pour enfants, théâtre...

Activités spéciales

À Pâques et à Noël, des activités spéciales sont organisées au Gazteleku (Espace Jeunes) et, en général, dans toute la commune : théâtre, jeux gonflables, excursions...





Ingurumena eta landa-garapena

Anoetan hondakinen kudeaketari garrantzi handia ematen diogu. Hondakinak gaika sailkatzen ditugu eta, horretarako, sistema mistoa daukagu ezarrita (plastikoa, papera eta beira edukiontzietan, organikoa auzo-konpostan edo atez ate, eta errefusa atez ate). Hondakinak ondo sailkatuz gero, hobariak aplikatzen dira.

Bestalde, elikadura osasuntsuagoa bultzatzeko asmoz, herriko lurretan herri baratzak daukagu herritar orenen eskura.





Environnement et développement rural

À Anoeta, nous attachons beaucoup d'importance à la gestion des déchets. Nous trions les déchets en fonction de leur catégorie. Pour cela, nous avons mis en place un système mixte : des conteneurs pour le plastique, le papier et le verre ; un compostage des déchets organiques par quartier ou un ramassage à domicile et un ramassage à domicile des autres déchets. La gestion adaptée des déchets est encouragée par des réductions.

Par ailleurs, afin de favoriser une alimentation saine, il existe des potagers urbains disponibles sur les terrains de la commune.

Liburutegia, KZgunea, ikasteko gela

Maileguak

Norberaren txartelarekin 3 liburu, 3 DVD eta 3 aldizkari har daitezke. Mailegua 21 eguneko izango da liburuen kasuan, eta aldizkari eta filmen kasuan 7 eguneko. Material bakoitzaren mailegua beste behin berriztatzeko aukera egongo da, baldin eta beste inork erreserbatu ez badu.

Mailegu bat berritzeko, ez da liburutegira joan behar. Nahikoa da telefonoz deitzea edo liburutegi@anoeta.eus helbide elektronikora mezu bat bidaltzea. Internet bidez ere egin daiteke.

Itzulketak

Liburuak, aldizkariak eta DVDak liburutegian itzul daitezke liburutegiko ordutegian. Ordutegi horretatik kanpo itzuli nahiz gero, liburutegiaren kanpoko aldean dagoen buzoian utz daitezke.

NIK patrika digitala

Liburutegiko txartela gainean eraman beharrean, Eusko Jaurlaritzaren APP horretan eraman dezakezu. Liburutegiko txartelaz gain, Osakidetza txartela ere aplikazio horretan gorde daiteke.



Bibliothèque, espace KZ, salle d'étude

Prêts

Chaque carte individuelle donne droit au prêt de trois livres, trois DVD et trois revues. Les livres sont prêtés pendant 21 jours, les revues et les films pendant 7 jours. Le prêt du matériel peut être renouvelé à condition que d'autres personnes intéressées n'aient pas réservé le matériel.

Pour renouveler le prêt, il n'est pas nécessaire de se rendre à la bibliothèque. Il est possible de renouveler en appelant par téléphone ou en envoyant un message à : liburutegi@anoeta.eus.

Retours

Les livres, les revues et les DVD peuvent être retournés aux horaires d'ouverture de la bibliothèque. En dehors de ces horaires, ils doivent être déposés dans la boîte de retour située à l'extérieur de la bibliothèque.

NIK, portefeuille numérique

Au lieu d'avoir la carte de la bibliothèque sur vous, vous pouvez l'entrer dans cette application du Gouvernement basque. En plus de la carte de la bibliothèque, vous pourrez également enregistrer la carte d'Osakidetza.



Kultura

☎ 943 651 200 (3. luzapena) ✉ kultura@anoeta.eus

Departamentu honek bideratzen dituen gaiak:

- Herri bizitza sustatzeko kultur jarduerak antolatu, betiere herritarren partaidetza suspertzea ardatza izanik: herriko festak, neguko eta udako solstizioak ospatzeko ekimenak, etab.
- Hileko agenda osatu eta kultur programazioa elikatu urtean zehar: antzerkiak, film eta dokumentalen proiektzioa, musika emanaldiak, bertso-saioak, etab.
- Kultur ondarea zaindu eta zabaldu: bisita gidatuak irailean Basagain Burdin Aroko herrixkan.
- Dirulaguntzak eman kultur eta kirol elkarteei, urtean zehar kultur eta kirol jarduerak sustatzeko herrian.

Kultur aniztasuna

Anoetan jatorri anitzeko herritarrak daude, eta etorri berriekin harrera-saioak antolatzen ditugu urtean bitan gutxienez, elkar ezagutu eta gertuko harremana sortze aldera. Saio horietan, herriari buruzko bideo labur bat proiektatu ondoren, hainbat gairi buruzko informazioa ematen diegu: kultur ekimenak, herriko festak, euskara ikastaroak, hondakinen kudeaketa, ikasketak homologatzeko aukera, migrazio-prozesuen inguruko aholkularitza, etab.

Saio horietan parte hartzen dutenek beraien zailtasunak, zalantzak, kexak eta proposamenak azaltzeko aukera dute, eta beti azpimarratzen dugu Udala laguntzeko dagoela eta ateak zabalik dauzkatela, edozertarako laguntza behar izanez gero.



Tolosaldeko eskualdean dauden programa, ekintza eta baliabideen inguruko informazioa jasotzeko Tolosaldea Garatzeneko migrazio eta aniztasun sailarekin harremanetan jartzeko:

☎ 943 654 501 (6. luzapena) / 646 05 70 80

✉ migrazioa@tolosaldea.eus

📍 Lehiberri Zentroa. Apattaerreka Industrigunea 1, 20400 Tolosa



Culture

☎ (00 34) 943 651 200 (oste: 3) ✉ kultura@anoeta.eus

- Ce service assume les tâches suivantes :

- Organisation d'activités culturelles pour promouvoir la vie dans la commune, en mettant au cœur l'activation de la participation des habitants : fêtes populaires, solstices d'hiver et d'été, événements, etc.
- Élaboration de l'agenda mensuel et alimentation de la programmation culturelle : théâtre, projection de films et documentaires, concerts de musique, sessions de bertsularisme, etc.
- Protection et diffusion du patrimoine culturel : visites guidées en septembre du village de l'âge de fer à Basagain.
- Octroi de subventions aux associations culturelles et sportives pour réaliser des activités sportives et culturelles dans la commune.

Diversité culturelle

La population d'Anoeta est très diverse. Au moins deux fois par an, nous organisons des séances d'accueil des nouveaux habitants pour faciliter la rencontre des uns avec les autres et les relations. Lors de ces séances, en plus de projeter une petite vidéo sur la commune, nous proposons des informations sur plusieurs thèmes : initiatives culturelles, fêtes populaires, stages de basque, gestion des déchets, possibilité d'homologuer les diplômes, conseil sur les processus de migration, etc.

Les personnes qui participent à ces séances ont l'occasion de partager leurs difficultés, leurs doutes, leurs griefs et leurs propositions. On répète toujours que la mairie est prête à offrir un soutien et que les portes leur sont ouvertes si elles ont besoin d'aide.

Si vous souhaitez vous renseigner sur les programmes, les activités ou les ressources de la région de Tolosaldea, n'hésitez pas à contacter le Service de Migration et Diversité de Tolosaldea Garatzen:

☎ (00 34) 943 654 501 (Poste: 6) / (00 34) 646 05 70 80

✉ migrazioa@tolosaldea.eus

📍 Lehiberri Zentroa. Apattaerreka Industriegunea 1, 20400 Tolosa

Hirigintza

Obra bat egin behar baduzu etxean edo jarduera ekonomiko berri bat martxan jarri, baimena eskatu behar duzu udaletxean.

☎ 943 651 200 (2. luzapena) ✉ hirigintza@anoeta.eus

Kirola

Kiroldegian kirol ikastaroen eskaintza zabala programatzen da urritik ekainera. Gimnasioa erabiltzeko urteko abonua egin daiteke edo hilabetekoa.

Eta kantxa ere alokatu daiteke, dagokion tarifa ordainduta. Deskontuak egiten dira abonuetan eta baita ikastaroetan ere.

Tarifak eta bestelako informazioa Udalaren web orrian ikus daiteke: www.anoeta.eus

☎ 688 663 950 ✉ aolanokiroldegia@gmail.com





Urbanisme

Si vous avez besoin de faire des travaux chez vous ou de lancer une activité économique, vous devez demander l'autorisation à la mairie.

☎ (00 34) 943 651 200 (Poste 2) ✉ hirigintza@anoeta.eus



Sport

À la salle omnisports, un large choix de cours de sport est programmé d'octobre à juin. Il est possible de souscrire un abonnement annuel ou mensuel pour utiliser la salle de sport. Le

terrain de sport peut aussi être loué moyennant l'abonnement au tarif correspondant. Des réductions sont appliquées sur les abonnements et aussi sur les cours.

Les tarifs et les autres informations sont consultables sur le site internet de la mairie: **www.anoeta.eus**

☎ (00 34) 688 663 950 ✉ aolanokioldegia@gmail.com



Bestelako azpiegitura publikoak / Autres installations publiques

Osasuna / Santé

Osasun zentroa / Centre de santé



Posta-bulegoa / Bureau de poste




Garraio publikoak / Transports en commun

Autobusa / Autocar

www.tolosaldeabus.net
943650622

Trena / Train

www.renfe.com
943841251




Kirola

Kiroldegia, frontoia, saskibaloï kantxa (San Juan atzealdea), eta adinekoen parkea.



Kultura

Mikelasagasti Auditorioa, Hozpel lokala, eta gela balioanitza.



Osasun parkea / Parc de santé

Adinekoen parkea / Parc pour les personnes âgées.




Sport

Salle omnisports, fronton, terrain de basket (partie arrière de San Juan), et parc pour les personnes âgées.




Culture

Auditorium Mikelasagasti, local Hozpel, et salle multidisciplinaire.



Adinekoak / Personnes âgées

Société Alkartasuna et local / Asociación Alkartasuna y local.



Hezkuntza

Haur-eskola eta Anoetako Herri Ikastola.




Éducation

École maternelle, et Anoetako Herri Ikastola.



Kultur ondarea

Basagain Burdin Aroko herrixka (K.a. 2000. urtekoa), Osintzulo, Ieratzulo errota (XVI. mendekoa), karobiak, mehategiak, Modestoenea (Moxtone), Done Jakue bidea, eta harrizko gurutzea (XVI. mendekoa).



Anoetako jaiak eta ospakizunak

OTSAILA

Santa Ageda Bezpera

Otsailaren 4an Santa Ageda bezpera ospatzen dugu, Euskal Herriko herri askotan bezala. Negua amaitzear dela, lurra esnatzeko deia egiten da makil hotsez, kantuekin batera. Hortaz, Anoetako Herri Ikastolako haurrak eta herritarrak ere kantatzen irteten dira herrian zehar.

Kaldereroak

Inauteriak iragartzera etortzen dira urtero kaldereroak. Anoetan Inauterien aurreko ostiral arratsaldean ospatzen ditugu, eta kalejira bat egiten da, kalderero jantzita, Loatzo Musika Eskolako musikarien laguntzaz.

Inauteriak

Tolosako Inauteriak gogoz bizi izaten ditu herriko jendeak, eta anoetarrak Tolosara joan ohi dira festa handi horretaz gozatzerako. Horregatik, herrian ez dugu ezer berezirik antolatzen. Hori bai, Ostegun Gizen bezperan Anoetako Herri Ikastolak Inauterietako jaialdia antolatzen du urtero kiroldegian. Festa polita eta jendetsua izaten da.

Fêtes et événements d'Anoeta

FÉVRIER

Veille de la Sainte-Agathe

Elle a lieu le 4 février, la veille de la Sainte-Agathe, comme dans de nombreuses autres communes bascophones. Quand l'hiver est sur le point d'arriver, on frappe le bâton au sol pour appeler la terre et lui demander de se réveiller. Tous les élèves de l'Herri Ikastola et les habitants d'Anoeta sortent chanter dans le village.

Chaudronniers

Tous les ans, les chaudronniers arrivent pour annoncer le Carnaval. À Anoeta, nous fêtons le Carnaval le vendredi précédent dans l'après-midi. Un pasacalles (marche populaire) est organisé avec l'accompagnement des musiciens et musiciennes de l'École de Musique de Loatzo, et les participants sont déguisés en chaudronniers.

Carnaval

Les habitants et habitantes d'Anoeta vivent intensément le Carnaval de Tolosa et se déplacent là-bas pour profiter de la grande fête. C'est pourquoi nous n'organisons rien de particulier à Anoeta. En revanche, la veille du jeudi gras, l'Herri Ikastola d'Anoeta organise tous les ans à la salle omnisports le festival du Carnaval. C'est une belle fête et très fréquentée.



MARTXOA

Emakumeen Nazioarteko Eguna

Martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzen dugu, eta elkarretaratze bat egin ohi dugu herriko plazan, herriko talde feministak eta Udalak deituta. Gainera, emakumeak protagonista diren antzerki, musika emanaldi edota bestelako ekimenak antolatzen ditugu egun horren bueltan.

Korrika

Bi urtez behin ospatzen dugu Korrika, euskararen aldeko ekimen herrikoia. Horren harira, Udalak kilometro bat eskuratzen du, eta hainbat kultur ekimen antolatzen dugu giroa berotzeko ("Korrika Kulturala" delakoa).



APIRILA

Dantzari Txiki Eguna

Anitz Dantza Taldeak antolatzen du eta 200 haur baino gehiagok hartzen du parte, Anoetakoak zein beste herritakoak. Kalejira egiten dute herrian zehar eta dantza emanaldia plazan, festa giro polita sortuz. *Data aldakorra da.*

Aberri Eguna

Aste Santuko igandean Aberri Eguna ospatzen da, euskal nazioaren eguna. Herrian ez da ezer egiten bereziki, baina kontuan hartzeko egun garrantzitsua da.

MARS

Journée internationale de la femme

Le 8 mars, nous célébrons la Journée internationale de la femme. Nous avons l'habitude de faire un rassemblement sur la place du village, à l'initiative des groupes féministes d'Anoeta et de la mairie. À l'occasion de cette journée, nous organisons également des pièces de théâtre, des concerts de musique et d'autres initiatives qui mettent en avant les femmes.

Korrika

Initiative populaire en faveur de la langue basque, la course Korrika se déroule tous les deux ans. La mairie achète un kilomètre et nous organisons plusieurs initiatives culturelles pour animer l'ambiance (un rendez-vous appelé « Korrika culturelle »).

AVRIL

Dantzari Txiki Eguna

Cette journée consacrée à la danse des enfants est organisée par Anitz, un groupe de danses d'Anoeta, et elle réunit plus de 200 enfants, aussi bien d'Anoeta que d'autres communes. Ils réalisent un pasacalles dans le village et offrent un spectacle de danse sur la place, ce qui entraîne une ambiance festive très agréable.

Aberri Eguna / Dia de Patria Basca

Le dimanche de Pâques a lieu l'Aberri Eguna (le « jour de la Patrie basque »). On n'organise rien de particulier dans le village, mais on tient compte de ce jour parce qu'il est important.



MAIATZA

San Isidro Eguna

Maiatzaren 15ean baserritarren eguna ospatzen da. Horren harira, bultzada bat eman nahi diogu baserri munduari eta balioan jarri gure kulturaren duen garrantzia. Izan ere, auzolan ekimenak ere antolatzen ditugu, herritarren laguntzaz herriko hainbat puntutan garbiketa-lanak egiteko.

Euskaraldia

Bi urtez behin euskararen erabilera bultzatzeko asmoz egiten den ariketa sozial bat da. Euskara ulertzen duten hiztunen hizkuntza-ohiturak aldatzeko mugimendu soziala da. Euskal Herri osoan eragiteko sortua. Mugimenduak herritarren hizkuntza-praktikak aktibatu eta euskararen erabilera handitu nahi du, eguneroko harremanetan euskara lehenetsiz eta 11 eguneko praktika sozial masibo bateratu baten bidez.

MAI

Jous de Saint-Isidore

Le 15 mai a lieu la journée des paysans. Elle favorise le milieu rural et met en valeur son importance dans notre culture. Nous organisons à cette occasion des initiatives de travail de voisinage où, avec l'aide des habitants, nous effectuons des activités de nettoyage dans différents points de la commune.

Euskaraldia

Il s'agit d'un exercice social qui se réalise tous les deux ans pour promouvoir l'usage du basque. C'est un mouvement social visant à changer les habitudes linguistiques des personnes locutrices qui comprennent le basque. À travers le mouvement, on cherche à dynamiser les pratiques linguistiques et à accroître l'utilisation de la langue basque en lui donnant la priorité dans les interactions quotidiennes grâce à une pratique commune sociale massive qui dure 11 jours.





EKAINA

Herriko festak

Korputs Egunaren inguruan antolatzen dira herriko festak. Data aldakorra da, baina beti maiatzean edo ekainean izaten da. Egitarau zabala antolatzen dugu: musika-emanaldiak, jolas-parkeak haurrentzako, antzerkiak, pilota partiduak, bestelako kirol emanaldiak, buruhandi eta erraldoiak, etab.

Udako solstizioa

San Joan bezperan udako solstizioa ospatzen dugu suaren inguruan: herri-afaria, kantuak, dantzak eta erromeria, udari ongietorria emateko.

UZTAILA

Udaleku irekiak

Ekaina bukaeratik hasita eta hilabetez, udaleku irekiak antolatzen ditugu HH1 eta LH6 bitarteko haurrentzat. Primeran pasatzen dute haurrek begiraleekin egun hauetan: jolasak, tailerrak, irteerak, etab.

JUIN

Fêtes locales

Les fêtes locales s'organisent autour de la Fête du Saint-Sacrement. Le jour peut varier, mais il a toujours lieu en mai ou en juin. Nous organisons un riche programme : concerts de musique, parcs de jeux pour les enfants, théâtre, matchs de pelote basque, autres spectacles sportifs, défilé des géants et cabochards, etc.

Solstice d'été

La veille de la Saint-Jean, nous célébrons le solstice d'été par une fête autour du feu. Un souper populaire est organisé avec des chants, des danses et une fête patronale, le tout pour souhaiter la bienvenue à l'été.

JUILLET

Centres aérés

À partir de fin juin, pendant un mois, nous organisons des centres aérés pour les enfants dont les âges vont de la petite section de maternelle à la sixième du collège. À l'occasion de ces journées, les enfants participent à des jeux, ateliers, excursions et une foule d'autres activités mises en place par les responsables.

URRIA

Euskal Jaia

Urriko bigarren igandean Euskal Jaia ospatzen dugu Anoetan, Euskal Herria nazio bat dela aldarrikatzeko, eta baita baserritarren lana aitortzeko ere. Goizean azoka antolatzen da, eguerdian herri-bazkaria eta arratsaldean erromeria.

Gau Beltza

Hildakoen gaua ospatzen dugu urriaren 31n, arratsaldean. Kalabazak husteko tailerrak, mozzorro beldurgarriak, ipuin kontaketak eta heriotzari buruzko gaiak lantzen ditugu egun horren harira.

AZAROA

Xexili Eguna

Azaroaren 22an musikarien zaindariaren eguna ospatzen dugu, eta Loatzo Musika Eskolak kontzertuak eta kalejirak eskaintzen ditu herrian, musika lau haizetara zabaltzeko.

Indarkeria Matxistaren Aurkako Eguna

Azaroaren 25ean elkarretaratzea antolatu ohi dugu herriko plazan, indarkeria matxista salatzeko eta emakumeekiko errespetua aldarrikatzeko, herriko talde feministak eta Udalak deituta. Egun horren inguruan, emakumeak protagonista diren bestelako kultur ekimenak ere antolatzen ditugu.

OCTOBRE

Euskal jaia

Le deuxième dimanche d'octobre, à Anoeta, nous fêtons l'Euskal Jaia. Nous revendiquons que le Pays Basque est une nation et nous reconnaissons le travail des paysans et paysannes. Un marché se déroule le matin, un repas populaire a lieu le midi et un bal l'après-midi.

Gau Beltza

Le 31 octobre, l'après-midi, nous fêtons la Toussaint. Autour de cette journée, nous organisons des ateliers pour vider les citrouilles, créer des déguisements effrayants, mais aussi des séances pour raconter des histoires ou aborder des sujets liés à la mort.

NOVEMBRE

Jour de Sainte-Cécile

Le 22 novembre est la fête de la sainte patronne des personnes vouées à la musique. L'École de Musique de Loatzo donne des concerts et organise des pasacalles pour diffuser la musique aux quatre vents.

Journée contre la violence masculine

Le 25 novembre, nous organisons un rassemblement sur la place du village pour dénoncer la violence masculine et revendiquer le respect des femmes. Le rassemblement est convoqué par les groupes féministes locaux et la mairie. Autour de cette journée, nous organisons également d'autres initiatives culturelles où les femmes sont au premier plan.



ABENDUA

Euskararen Eguna

Euskararen Eguna abenduaren 3an ospatzen da, eta hizkuntzaren garrantziaz sentsibilizatzeko jarduerak antolatzen ditugu horren harira: antzerkiak, musika emanaldiak, dokumentalak, etab.

Neguko solstizioa

Abenduaren 24an, neguko solstizioa ospatzeko, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera prestatzen dugu, gure mitologian oinarritutako usadioei jarraituz. Festa polita egiten da plazan: musika, dantza eta gozokien banaketa haurren artean.

Gainera, batzuetan kultur jarduerak antolatzen ditugu egun berezi hauen inguruan:

Martxoak 21

Arrazakeriaren Aurkako Eguna eta Basoen Nazioarteko Eguna

Maiatzak 17

(LGTBIQ+fobiaren Nazioarteko Eguna)

Maiatzak 21

Kultur Aniztasunaren Nazioarteko Eguna

Ekainak 28

LGTBIQ+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna

Abenduak 18

Migratzaileen Nazioarteko Eguna

DÉCEMBRE

Journée de l'euskara

La Journée de l'euskara a lieu le 3 décembre. Elle prévoit des activités de sensibilisation à l'importance de la langue : théâtre, concerts de musique, documentaires, etc.

Solstice d'hiver

Le 24 décembre se déroule le solstice d'hiver et nous nous préparons pour l'arrivée d'Olentzero et de Mari Domingi, selon les traditions basées sur notre mythologie. Une belle fête est organisée sur la place avec au programme de la musique, de la danse et une distribution de friandises aux enfants.

En outre, des activités culturelles sont également organisées à l'occasion de ces événements :

21 mars

Journée internationale pour l'élimination de la discrimination raciale et Journée internationale des forêts.

17 mai

Journée internationale contre l'homophobie, la transphobie et la biphobie

21 mai

Journée mondiale de la diversité culturelle

28 juin

Journée internationale de la fierté LGBT

18 décembre

Journée internationale des migrants



Erakunde eta gizarte eragileak / Institutions et acteurs sociaux

Anoetako herri ikastola

anoeta@ikastola.eus

Loatzo Musika Eskola

loatzo@loatzo.eus

Anitz Dantza Taldea

anitz.anoeta@gmail.com

Abesbatza Kukua Elkartea

Anoetako Gazte Asanblada

anoetakogazteasanblada@gmail.com

Iratxulo Euskara Taldea

iratzuloeuskarataldea@gmail.com

Euskal Jai Batzordea

anoetakoeuskaljaia@gmail.com

Anoetako talogileak

bknkortatu@gmail.com

Kuku Pilota Elkartea

kukupilota@gmail.com

Anoekate Kirol Taldea

anoetakokiroltaldea@gmail.com

Anoetako Futbol Taldea

anoeta.f.t@gmail.com

Kuku Elkartea

anoetakokukuelkartea@gmail.com

Matraka Emakume Talde Feminista

Ateaga Elkartea

Euskal Herria Sozialista

Oinherri Herri Hezitzailea

anoetakoherrihezitzailea@gmail.com

Etxebizitza sindikatua

esindikatu.tolosaldea@gmail.com

Sortu

Sare

Gazte Koordinadora Sozialista

Gure Esku Dago

gureeskudagoanoeta@gmail.com

Odol-Emaleen Elkartea

Irakin

irakin@irakin.com

EH BILDU

anoetakoehbildu@gmail.com

EAJ-PNV

anoetaejpnv@gipuzko.eus

Web komunitario bat egin da, herriko eragile bakoitzak bere informazioa plazaratzeko / Sur ce site internet communautaire, les acteurs locaux publient des informations: <https://anoetabizia.eus/>

Telefono interesgarriak / Téléphones utiles

**Haur eta Nerabeen arretarako zerbitzua /
Service de protection des enfants et
adolescents**

☎ (00 34) 116111

**Lanbide enplegu bulegoa /
Agence pour l'emploi de Lanbide**

☎ (00 34) 943 023 842

📍 Larramendi Kalea 3, Tolosa

**Tolosaldea Garatzeneko Enplegu Saila /
Service pour l'Emploi de Tolosa Garatzen**

☎ (00 34) 943 654 501 (1. luzapena)

📍 Garatzen Lehiberri Zentroa, Apattaerreka
Industrigunea 1

**Tolosaldea Migrazio eta aniztasun zerbitzua /
Service de Migration et Diversité de
Tolosaldea**

☎ (00 34) 943 654 501 (6. luzapena)

📍 Garatzen Lehiberri Zentroa, Apattaerreka
Industrigunea 1

SOS Arrazakeria/SOS Racisme

☎ (00 34) 671 116 414

📍 Emeterio Arrese 2, Tolosa

**HHI-EPA pertsona helduek doan ikasteko
zentroa/Centre d'enseignement pour
adultes, gratuit**

Tolosa

☎ (00 34) 943 672 660

📍 Igarabide Kalea, 23

**Indarkeria Sexista
salatzeko/
Plainte pour
violence masculine**

☎ (00 34) 900 840 111
(Satevi)

☎ (00 34) 900 840 188
(Haraberri)

☎ (00 34) 016

Andragora

☎ (00 34) 747 496 469

📍 Emakumeon Plaza
1, Tolosa

Caritas

☎ (00 34) 619 685 063

Gurutze gorria /

Croix-Rouge

☎ (00 34) 943 511 605

Villabona

☎ (00 34) 943 690 312

📍 Errebote Enparantza.
Udaletxea.

**Gipuzkoako
larrialdia/
Urgences du
Guipúzcoa**

☎ (00 34) 943 224 411

(Larrialdi egoitza eta laguntza
psikologiko nahiz psikosoziala/
Siège des urgences, aide
psychologique et aide
psychosociale)

Mugi

☎ (00 34) 943 000 117

**Larrialdia/
Téléphone des
urgences**

☎ (00 34) 112

Etxebide

☎ (00 34) 943 022 810

📍 Andia Kalea, 13

Hiztegia / Vocabulaire

Euskera

Agurrak

Kaixo!
Ongi etorri!
Egun on!
Arratsalde on!
Gabon!
Ondo lo egin
Agur!
Gero arte!
Eskerrik asko!
Ez horregatik!

Zenbakiak

Bat
Bi
Hiru
Lau
Bost
Sei
Zazpi
Zortzi
Bederatz
Hamar

Elkarrizketak

Zer moduz zaude?
Ondo
Gaizki
Erdipurdi
Nola izena duzu?
Nire izena ... da
Nongoa zara?
Ni ...koa naiz
Eta zu?
Non bizi zara?
Ni Anoetan bizi naiz
Zer gustatzen zaizu egitea?
Niri ... egitea
gustatzen zait

Gaztelania

Saludos

¡Hola!
¡Bienvenid@!
¡Buenos días!
¡Buenas tardes!
¡Buenas noches!
¡Que duermas bien!
¡Adiós!
¡Hasta luego!
¡Gracias!
¡De nada!

Números

Uno
Dos
Tres
Cuatro
Cinco
Seis
Siete
Ocho
Nueve
Diez

Conversaciones

¿Qué tal estás?
Bien
Mal
Regular
¿Cómo te llamas?
Me llamo....
¿De dónde eres?
Soy de...
¿Y tú?
¿Dónde vives?
Vivo en Anoeta.
¿Qué te gusta hacer?
Me gusta...

Arabiera

التحيةة
مرحباً
أهلاً وسهلاً
صباح الخير
مساء الخير
لي لمة سعيدة
تصبح على خير
وداعاً
إلى اللقاء
شكراً
عفواً

الأرقام

واحد
إثنين
ثلاثة
أربعة
خمسة
ستة
سبعة
ثمانية
تسعة
عشر

المحادثات

كيف ف حالك؟
أنا بخير
سيء
متوسط
ما إسمك .. ؟
أنا اسمي
من أين أنت؟
أنا من
و أنت؟
أين تـ سكن؟
أنا أسكن في أنويطا
الانشطة التي تحب؟
ماهي
أنا احب الأنشطة التالية

Ukraniera

привітання

Привіт
Ласкаво просимо
Доброго ранку
Добрий день
Добрий вечір
Гарних снів
Прощавай
До зустрічі
Дякую
Будь ласка

номери

Один
Два
Три
Чотири
П'ять
Шість
Сім
Вісім
Дев'ять
Десять

розмови

Як ти?
Добре
Погано
Так собі
Як тебе звати?
Мене звати...
Звідки ти?
Я з...
А ти?
Де ти живеш?
Я живу в Аноеті
Що тобі подобається
робити?
Мені
подобається...

Portuguesa

Saudações

Olá!
Bem vindo!
Bom dia!
Boa tarde!
Boa noite!
Durma bem
Adeus!
Até logo!
Obrigado!
Não por isso!

Números

Um
Dois
Três
Quatro
Cinco
Seis
Sete
Oito
Nove
Dez

Entrevistas

Como você está?
Bem!
Mal!
Mais o menos!
Qual é o seu nome? Meu nome é...
De onde você é?
Sou de... E você?
Onde você mora?
Eu moro em
Anoeta
O que você gosta de fazer?
Eu gosto de...

Frantsesa

Salutations


Salut !
Bienvenue !
Bonjour !
Bonjour !
Bonsoir !
Dormez bien !
Au revoir !
À tout à l'heure !
Merci !
De rien !

Chiffres

Un
Deux
Trois
Quatre
Cinq
Six
Sept
Huit
Neuf
Dix

Conversations

Comment allez-vous ?
Bien
Mal
Moyen
Comment vous appelez-vous ?
Je m'appelle....
D'où venez-vous ?
Je viens de...
Et vous ?
Où habitez-vous ?
J'habite à Anoeta
Qu'est-ce que vous aimez ?
J'aime...



ANOETAKO UDALA

Harrera-gida

Guide de bienvenue



Laguntzailea

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA
ORAIN**
Es futuro